

Oñatiko Udal Euskaltegia

4. maila edo hizkuntz eskakizuna

Nondik-norakoak

Lehenengo, ondo etorriko zaigu euskara-tituluei begiratu bat ematea. Zeintzuk dira?

Lau dira gaur egun indarrean dauden titulu ofizialak: 1. mailakoa, oinarrizkoa; 2. mailakoa, tartekoa; 3. mailakoa (EGA), goikoa; eta 4. mailakoa, espezializatua.

Zeintzuk dira 4. mailaren ezaugarriak?

Oinarrian, hiru tasunetan-edo beharko luke ondo zailduta laugarren mailako tituluak: erosotasunean erraz moldatu behar du, egokitasunean modu txukunak eta dotoreak erakutsiko ditu, eta zuzentasunean hizkuntzaren arauetara zorrotz begiratu die. Eta hori lortu behar da, jakina, ahozko eta idatzizko euskarazko ekoizpen guztietan.

Beraz, exijentzia handiko maila da. Zein baldintza eskatuko diozue laugarren maila egin nahi duen ikasleari?

EGA titulua edo baliokidea edukitzea ezinbestekoa du.

Eta zelako dedikazioa?

Alde batetik, eskola-ordu presentzialak (bost astean) eta tutoretza-saioak daude (hamabost ordu ikasturtean); eta bestetik, ikasleak etxean lanari eskaini beharreko denbora –proiektuari batik bat–.

Proiektua aipatu duzue. Zer da hori?

Laugarren mailako ikastaroak baitan du ikasleak proiektua idatzi (18. 000 karaktere) eta irakasleak ontzat ematea, baldin eta ikasturte amaieran azterketara aurkezteko aukera izango badu. Hortaz, proiektuari aurre egiteak ikasleari denbora asko eramango dio, eta horren oso jakitun eta kontziente izan behar du alde aurretik edozein interesatuk.

Norentzat da ikastaro hau? Ikusten duzue horrelako ikastaro baten premiarik herrian?

Administrazioak goiko teknikariei eskatzen dien hizkuntz eskakizuna da laugarren maila; beraz, alor horretako jendea izango da ziurrenik premiatsuenak. Horiez gain, baina, bada beste jende bat –nahiz eta 3. maila edo EGA titulua izan–, euskararen bere burua jantzi eta sakondu nahi duena. Orain, herrian bertan izango dute horretarako aukera.

Interesa duenak zer egin behar du?

Ikastaroa egiteko, irailan eman behar da izena euskaltegian. Izena ematerakoan, ikasleak mailaketa-proba bat egin beharko du, eta irakaslearekin elkarrizketa bat izan. Horiek egin ondoren erabakiko da ikasle hori laugarren mailako ikastaroa egiteko moduan dagoen ala ez.

Azkenik, zer esango zeniozue laugarren mailaren premia edota egarria duen bati?

Ahalegina eta lana egin beharko duela, dudarik gabe, baina poztasunak ere emango dizkiola hizkuntzan gaitzeak; eta gure laguntzarik ez zaiola faltako. Adorea eta aurrera.